

# LAB garaile atera da Nafarroako Administrazioko hauteskundeetan

CCOO ia parean gelditu da, ELA hirugarren eta Afapna laugarren


**L**AB sindikatu abertzalea nagusitu da Nafarroako Administrazioko hauteskunde sindikaletan, 40 delegaturekin. CCOO ia pareko gelditu da (39 delegatu), ELA hirugarren (31) eta Afapna laugarren (27). Bozkatzera deituta zeuden 16.908 langileetatik % 58k hartu dute parte hauteskundeetan.

A. UNANUE / IRUÑEA

Nahiz eta aurreneko boto zenbaketan CCOO jo zuten garailetzat, Nafarroako Gobernuak atzo goizean eman zituen datu ofizialetan LAB sindikatu ageri da lehen postuan. Sindikatu abertzale honek 40 delegatu lortu ditu (% 18,7); CCOO bigarren gelditu da (39 delegatu, % 18,3); ELA hirugarren (31 delegatu, % 14,5) eta Afapna laugarren (27 delegatu, % 12,6). Beraz, lau sindikatu hauek ordezkatu dituzte langileak Nafarroako funtzionari publikoen mahaian.

Gainerako sindikatuak honela gelditu dira: CEMSATSE medikuen sindikatu 22 delegaturekin, UGT 15ekin, STEE-EILAS 10ekin, CSIF (hezkuntza) 8ekin, SAE (osasuna) 7ekin, ASIT 5ekin, Foruzaingo sindikatu 5ekin eta ESK-CUIS 3ekin. USOk ez du delegaturik lortu.

Sindikatu bakoitzaren boto kopuruari erreparatu gero, CCOO atera da garaile, 1.597 lortu baititu. Afapnak 1.356 boto eskuratu zituen, LABek 1.217 eta ELAk 1.148. Lantoki bakoitzari delegatu kopuru jakin bat aukeratzea dagokionez, boto kopurua ez dator bat lortutako



Sindikalismo abertzalea Euskal Herrian izaten ari den gorakada azpimarratu du LABek.

JOXE

ordezkaritzarekin.

Ezinezkoa da herenegun egin ziren hauteskundeetako emaitzak duela lau urtekoekin alderatzea, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Osasun eskumenak bere gain hartu zituenetik erabat aldatu delako Administrazioaren egitura. Duela lau urte 7.000 langile eskas zeuden Administrazioan, eta orain 16.908. Hauetatik 9.822k (% 58) hartu zuten parte hauteskundeetan.

Hala ere, goranzko eta beheranzko joerak nabari dira. Duela lau urte LAB eta Afapna parekatua ibili ziren. Haatik, oraingoan Afapnak behera egin du nabarmen, CCOOk eta ELAk aurrea hartu diotelarik. Sindikatu sektorialak ere behera egin dute orokorrean.

## ERAKUTSITAKO KOHERENTZIAREN FRUITUA

LABeko ordezkariak oso pozik agertu dira lortutako emaitzengatik. Kontxa Lopetegui sindikatu horretako Administrazioko arduradunak atzo adierazi zuenez, LABek azken urteotan erakutsitako «koherentziaren» fruitua jaso du hauteskundeetan.

Programetan agian sindikatu batetik bestera alde handirik ez dagoela, baina aldea eguneroko lanean igartzen dela ere aipatu zuen Lopetegui. LABeko arduradunaren arabera, «guk apustu garbia egin dugu zerbitzu publiko eta eraginkorren alde eta emaitzek erakutsi dute gure jarrerara zuzena dela». Halaber, LABen nagusitasuna orekatua izan dela azpimarratu zuen, or-

dezkaritzaren % 10etik gora lortu du Administrazioko atal guztietan.

Aipatzekoa da LABek ordezkari handi goa lortu duela langile kontratatuen artean funtzionarien artean baino. Funtzionarien artean CCOO izan da indar nagusia, 29 delegaturekin, eta LAB eta Afapna atzetik gelditu dira (27na delegaturekin). Langile kontratatuen artean, berriz, LABek eskuratu ditu delegatu gehienak, 13 hain justu.

Nafarroako hauteskunde sindikaletan aukeratu beharreko 4.600 delegatuetatik 4.100 hautatu dituzte dagoeneko. ELA bigarren indar burutzeko zorian da, CCOO aurretik eta LABek ere gora egin du, ordezkariaren % 12,2arekin.

## Garraio zein TCSAko langileen mobilizazioak Bizkaian zehar

BILBO

Bizkaiko merkantzien garraio sektoreko langileek zein TCSA autobus konpainiakok protesta ekintza ezberdinak egin zituzten atzo hitzarmen kolektiboa errebundikatzen. Lehenengoek barrikadak jarri zituzten eta bigarrenek lanuztea eta manifestaldia egin zuten. TCSAko arazoaren ganean betebeharreko laudoa bihar kaleratuko du Paulino Luesma Eusko Jaurlaritzak ezarritako arbitroak.

Errepidezko merkantzia garraioeko soldatapeko langileek suzko barrikadak jarri zituzten atzo ere, bata Enekuriko Bilboko sarreran eta bestea Igorre parean.

TCSAko langileek, beren aldetik, manifestazioa egin zuten goizeko 8,30etan hasita Botica Vieja kaletik Eusko Jaurlaritzaren egoitzaraino. Enpresako langile guztiek egin zuten bat goizeko bi orduko lanuztearekin eta arratsaldekoarekin ere.

Guzti honek trafiko arazoak sortu zituen Bilbon goizeko lehen orduetan.

Eusko Jaurlaritzak dekretuz agindutako derrigorrezko arbitrairen arduradun den Paulino Luesma abokatu eta Lan sailburu ohiak bihar kaleratuko du TCSAko lan arazoari buruzko erabakia. Langileek behin eta berriro salatu dute Gasteizko Administrazioaren erabakia.

## Eraikuntzan greba deitu du LABek ELAekin bat

BILBO

UGT eta CCOO sindikatuek patronalarekin sinatutako Bizkaiko eraikuntzako hitzarmenak «eraginkortasun mugatua» daukala salatu du LABek, eta bat egin du ELAk etzarako mantentzen duen mugagabeko greba deialdiarekin.

Juanjo Rodriguez LABeko Ekintza sindikalera-ko Bizkaiko arduradunak adierazi duenez, «nahiz eta izkutatu nahi duten, Estatuko hitzarmenaren menpeko akordio baten aurrean gaude, urruna bai fisikoki zein sektoreko langileen interesen mailan».

Eraikuntzarako Lan Fundaziotik langileei helaraziko zaizkuen 70 milioi pezetak «beharginek jarritakoak» direla salatu du LABek. «UGT, CCOO eta patronalak fondo hauek manipulatu dituzte eta aurrikusitako helbururik ez dira lortzen ari».

## Butano gasa eta gasolina merketu egingo dira

MADRIL

Butano gasaren eta gasolina mota guztien prezioak merketzea erabaki zuen atzo Espainiako Gobernuak.

Butanoaren kasuan, bona 41 pezeta merketuko da hilaren 16tik aurrera, eta ondorioz % 3,9 merkeago izango da. Autoentzako butano gasaren merketzea, berriz, % 2,4koa izango da, eta granelean erositakoa % 3,2 gutxiago kostako da.

Gasolinari dagokionez, merketzea 0,80 eta 0,20 pezeta bitartekoa izango da bihurtik datorren asteburura. Horrela, super gasolinaren gehienezko prezioa litroko 114,6 pezetatik 114,4era jaitsiko da (0,20 merkeago); berunik gabeko gasolina 108,6tik 108,3ra merkatuko da (0,30 gutxiago) eta arrunta 111,2tik 110,9ra (0,30 merkeago).

Gasolioen prezio jaitsiera handi goa izango da: A motakoa 88,3 pezetatik 87,5era jaitsi da (0,80 gutxiago litroko), nekazaritzarako B motakoa, 54 pezetatik 53,3ra (0,70 merkeago) eta granelean erositakoa 47,3tik 46,9ra, edo 50,2tik 49,8ra hornitgian erosiz gero.

## Sindikatuari alternatibarik ez eskaintzea leporatu die Adegik

J. A. / DONOSTIA

Adegik ez du ontzat hartu kontratu egonkorraren proposamenari sindikatuak eginitako gaitzespena. «Horrek argi erakusten du sindikatuak ez daukatela alternatibarik, eta gaur egungo langabeziaren egoera kezagarriari eusten diotela», adierazi du Gipuzkoako patronalak ohar batean, eta langabezia % 24koa eta, gazteen artean, % 52koa dela gogoratu. Adegik gehitu zuenez, bere proposamenarekin «eztabaida serio eta zehatza zabaldu»

nahi zuen, «ekonomiaren susperketak enpresetan lanposturik ez duela sortzen eta enplegua gero eta behin-behinekoagoa dela ikusita».

Adegik ukatu du kontratu egonkorra despidoa libre izateko edo merketzeko formula izkutua dela. Aldiz, kontratazio horrek «enplegu egonkorra eta arautua sortuko luke, langileentzako berma juridiko guztiekin».

Adegik dioenez, kontratu mota hauekin langileen kontratazioa handitu egingo da, eta enpresen beharretara egokituko da gainera.